

Oñatiko E.H. Bildu udal taldeak honako adierazpen hau egiten du:

Bi ikur, Herri bakarra

1512an Nafarroako azken euskal lur independenteak inbaditu ondoren, euskal nafarrek borrokari eutsi zioten beste hamar bat urte luzetan. Orain dela 500 urte, espainiar izan nahi ez zutelako, tinko segitzen zuten Amaiurko gazteluan gotortuta inbasoreari aurre egiten.


Sufritu ditugun eraso eta konkista guztien ondorioz, mende batzuk geroago, bakarraren lekuan, euskaldunok bi bandera ditugu: nafarra eta ikurrina.

Zoritxarrez, gaur egungo lurralde zatitu hauetan harrera desberdina dute. Euskal Autonomia Erkidegoan ez da ohikoa bandera nafarra erakustea. Ikurrina da 'ofiziala' eta, memoria historiko ahula tarteko, askoren ustez nafarra Nafarroako Foru Erkidegokoa omen da soilik. Gu ez gara zatiketa autonomikoaz ari baina.

Zein esanahi dauka bakoitzak? Naziotasuna, euskara, euskal estatu independentea, askatasun egarria, erresistentzia, burujabetza... Bakoitzak bere iritzia eta emozio zirrarak izango ditu, baina ikurrina eta Nafarroaren gorria, biak ala biak, euskal nafar guztiok abaroan hartzen gaituzten ikurrak dira.

Gure historia oroitzuz, gure proposamena da Oñatin ikurrina egon ohi den lekuan, nafarra ere igotzea. Batez ere, Amaiurko erresistentziaren bosgarren mendeurrena gogoratzen dugun honetan. Eta mendeurren honetaz haratago, zergatik ez egunero gogoratu 1200ean bortxaz konkistatu gintuzten arte oñatiarrok ere nafar estatuaren baitan izan ginela?

Horregatik, bada, bat izan ginelako, garelako eta izango garelako, eta euskal nafarron askatasun egarria ase ez delako, batu ditzagun parez pare Oñatin Euskal Herrikoak, Nafarroakoak, diren ikur biak.



Izaro Elorza Arregui

Nabarraldeko debagoiendarrak
2022ko ekaina



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIERd555642b-c860-4e32-8cca-0658c616acdf**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>